



BOOKTEGI

heriotza gozoa

N I C K I B E



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

NICK IBE

heriotza gozoa

Elurra atertu gabe ari zuen arrats apal batez. Hotz dardara artean, elurrez estalitako kaletik igarotzen ari zen neskatala gaixo bat oinutsik, zapata apurtuen aztarnak elur bigunean utzitako oin arrasto sakonetan galdu baitziren.

Eta horrela, gajoa oinutsik zebilen, hotzaren ikaraz ubeldutako oin biluziekin. Ikararen hotzaz sekulako hotz mina ariman, non bakardadea, isolamendua eta umezurtz-etxeari etenik gabe darion bortizkeriaren astinduak bihotzean ainguratuta.

Hozmindua eta goseak igaroa, kontu handiz ibili behar zuen zakar kirats nazkagarria arnasten karrika elurtuetan barrena, etxeko ate edo leihoetatik zaborra bota ez ziezaioten.

Bi kaletako etxeak banatzen zituen pasadizotik igarotzean, elurrez erdi estalitako hondakin pilaketa batean finkatu zituen begiak eta gogo guztiak, bertara berriki botatako janari-hondarrak antzematean. Jaki apur horietatik itxura onena zuena eskuratzen saiatu zen baina hatz dardarti eta hozminduek ezin izan zuten lan hori burutu zakar metaketa hezea hondatu gabe. Izan ere, neskatoaren atsekaberako, zabor-tontorra desegintzen hasi zen, gainean zeuden jaki hondarrak barrurantz galduz.

Gertatutakoagatik etsita, begirada hondakin sakabanatuan galduta, zabor artean murgildu zen jateko moduko zerbaiten bila baina alferrikako ahalegina izan zen. Amore emanda jada, begi hezeak ixten, bere burua leunki belaunen gainean erortzen utzi zuen.

Begiak ireki zituenean egurrezko kutxa zahar bat ikusi zuen zikinkeriaren artean utzirik. Eta harrituta, gorputz-jarrera aldatu gabe, belauniko hurreratu zitzaion. Kaxa arakatzear, ezkerreko aldetik biradera bat ateratzen zitzaiola ohartu zen. Astiro biratu zuen giltza hori kutxa emeki zabaltzen ari zen bitartean eta horra ezustea, dantzari-irudi batek magiaz bezala hartu zuen bizia musikaren doinuan. Hotz ikaragarriaren eraginez eskuen mugimenduak motelak ziren arren, berehala itxi zuen kaxa, ustekabekoaren erreflexu gisa. Bihotza apur bat azkartu

zitzaion, altxor bat aurkitu izan balu bezala sentitzen baitzen. Atzerantz begiratu zuen norbait zelatan ote zuen ikusteko. Ez, ikustezina izaten jarraitzen zuen.

Zango biak inurrituta zeuzkalarik, eskuetan hartu zuen musika-kaxa lurretik nekez altxatzen zen bitartean eta lortu zuenean, ozta-ozta mugitu zituen hankak, zegoen lekutik mugitu gabe, inurridura desager zedin.

Jarraian, burutik beherako hotzikarak harturik, karkabako leihotxopean eseri eta musika-kaxari nekez korda eman ondoren, harilko bat eginda kukutu zen. Lehen aldian bezala, dantzari irudia musikaren konpasera biratzen hasi zen estalkia ireki orduko baina oraingo honetan taparen barruko aldean grabatuta zeukan inskripzioaz ere ohartu zen. Zer zioen jakin nahi zuen, bai,... Irakurtzen ez zekienez, alferrik ostera. Beraz, horretaz kezkatzeari utzi zion dantzariaren dantza hipnotizatzailean murgilduz, musika-kaxaren doinu eztiak haren arimako zauriak gozatzen zituen bitartean.

Musika malenkoniatsua eta dantza ederra eteten ziren bakoitzean, neskaxa hain dohakabe sentitzen zen, non behin eta berriz giltza eman behar izaten baitzion. Etenik gabeko erabilera horren ondorioz, musika-kaxaren mekanismoa trabatzen hasi zen. Hori gertatzen zenean, esku lausotuetan kaxa hartu eta kontu handiz astintzen zuen melodia ederraz berriro gozatzeko.

Berehala musika eteten hasi zen une oro eta geldialdi etengabe horrek musika-kaxaren mekanismoa higitzea eta erabat haustea eragin zuen. Izan ere, neskatoak, hotzikarek harturik, kaxa eraginkortasunez mugitzeko etenbako ahaleginak egiten zituen arren, noizean behin soinu ahul sakabanatu bat besterik ez zuen ekoizten.

Eta halako astinaldi batez, hotzikaren bat-batekotasun eta kontrolatzeko ezintasunarekin batera, zabaldutako musika-kaxak bere esku sorgortuetatik ihes egin zion ustekabean, lurraren kontra bortizki joz. Zoritzarrez, erorikoan korda mekanismoko hainbat pieza askatu ziren.

Neskatila harri eginda geratu zen pieza barreiatu haiei errukiz begira. Begiak itxi eta negar-intziri egin zuen, haren bihotzeko saminaren agergarritzat.

Gogo ahula berreskuratu ondoren, mekanismoko pieza sakabanatueta hurbildu nahi izan zuen, haien arteko marruskadurak eragindako beroaz baliatzeko; baita dantzariaren irudira ere, zeina zutik erori baitzen elur-malutak etengabe irristatzen ziren teilatu-hegal zulatuaren azpira. Beraz, zutitzera behartu zuen bere burua baina ezin izan zuen halakorik egin. Hotzikaraz eta sorgortua zegoen. Ez zuen indarrik ezertarako. Horren ondorioz itzali zen bere azken esperantza izpia.

Dena beltz zegoen, gaua zen. Zaila egiten zitzaion argitasunez pentsatzea, dena hain zen nahasia! Gero eta hotzikara bortitzagoek hartu zuten, zeinekin espasmo azkar bat tartekatzen baitzen gorputz atal guztiak dardarizo batean jarritz. Entzuten zuen doinu bakarra bere arnasketa neketsuarena zen, hats azkarra eta laburraren erritmo itogarria.

Halako batean, gutxien espero zuenean, bero-sentipen gozo batez babestua sentitu zuen bere burua, zerbaitek edo norbaitek samurki besarkatuko balu bezala. Jada ezzuen ez hotzik ez goserik sentitzen. Lasaitasun bitxi batez arnasestuak amore eman zion.

Bat-batean, burua lausotzen zion horditasun sakon batean murgildurik, liluraldi batek hartu zion gogoa. Ezerezaren, hutsaren soinua entzutetik bere bihotza entzutera igaro zen, zeinak musika-kaxaren melodia ezti eta malenkoniatsua gogoratu nahi izan baitzuen. Halako irrealitate batean pulunpaturik, doinu goxoa bezain ederra hasi orduko, dantzariaren irudia elur-mantutik libratzen ikusi zuen, oin puntetan bere buruari jauzi biraketa anizkoitz azkar bat emanaz.

Aditzen zen musikarekin dantzan zebiltzan elur malutak hain xarmaz erortzen ziren danza puntetan mugimendu lirainak egiten zituen irudi bizidunaren gainera, non esperientzia ahaztezin batez gozatzen hasi baitzen. Izan ere, hezur-haragizko balet dantzari baten gisan,

batera eta bestera birarazten zuen gerri mehea, inprobisatzen, pausu bakoitza markatuz borobil, goxo, gora eta behera elur malutak leun astinduz, mugimendu bakoitzean zirrara zerion irudi poetikoa dir-dir egin zezan.

Eguna urratu baino lehen, iluntasun handieneko unean, heriotz gozoak leunki askatu zuen neskatoaren arima. Aldi berean, heriotzarako igarobidean musika-kaxako dantzaria, azken konpasetan, abiadura galtzen joan zen bere azken hasperenaren erritmoan. Itzali zen haren bizitza elur maluta leunetan bilduta, ia inguruarekin bat egina.

Goiz hotzak argitu zuen hilotzaren larruazal tonu urdinxka. Eserita, ahoa irrebarretsu zuela, neskatzaren ile xerloek, haizeak kulunkaturik, ia bizitza-itxura ematen zioten. Gainera, haren aurpegiak sentimenduz beteriko adierazkortasuna islatzen zuen, askatasun-senaz bildua.

Eta egunerokotasunean oharkabean igarotzen zen umezurtz gajoak, ikustezin izateari utzi zion. Izan ere, oinezkoak, pasaeran, gorpu hartaz ohartu ahala, sentimendu, sentsazio edota burutazio propioen bat sorrarazten zizkion haietako bakoitzari.

Gogo eroria zuen dama batek, gorputik gertu, musika-kaxaren estalkia aurkitu zuen elurretan erdi lurperatuta, hain zuzen ere grabatutako hitzak zerman aldetik ikusgai zuela. " Ez amore eman, onena iristear dago " inskripzioa ahopeka irakurri orduko, hildakoari begira, " Bizitzaren ironia " zioen bere baitarako benetan hunkiturik eta nolabait itxaropentsu, miran baten zain baitzegoen haren arima.

"Neska gajoa!", atsekabetu zen zapatari bat hildakoa oinutsik zegoela ohartzean.

"Bai, lastima!, baina umezurztegitik ihes egiteak izan du bere ordaina" iritzi zuen umezurztegitiko langileetako batek, gorpuaren berokia berreskuratzen ari zela."Zintzoak lurrean izaten badu

bere ordaina, are gehiago gaizto eta bekatariak!", buruz bota zuen apaiz batek Salomonen esaera zahar bat erantzun sendo gisa eta jarraian bere bedeinkazioa eman zion hildakoari.

" Zientziaren izenean, gorpu hau erreklamatzan dut" eskatu zuen mediku batek ozenki, bere jarraitzaileei keinu bat egitearekin batera, hilotzaren inguruko jendearen artetik pasa zitezen.

"Hildakoetan operatu ez baduzu, bizirik daudenak suntsitu beharko dituzu", jarraitu zuen sendagileak bere burua zuritzen gaitzespen-begiradak baretzearen.

Erlojugile batek, ordea, ez zion jaramonik egiten ez gorpuari, ez jendeak esaten zuenari, musika-kaxaren mekanismoko pieza sakabanatueta zuzentzen baitzuen arreta guztia.

"Zer izango ote zen ikusi, esperimentatu zuena hain sentimendu-adierazpen berdingabe hura eragin ziezaion? "galdetzen zion bere buruari amaren aldetik umezurtz geratu berria zen gatzetxo batek, hildakoaren begiradari jarraiki halako sentimendu-adierazpen paregabea zerk eragin zion jakin nahian zebilela. Jarraian, hildakoarekin enpatizatu nahi izateko desira ikaragarri horrek eraginda, zerbait bitxia gertatu zen. Izan ere, goizeko elur hautsen artean eguzki-brintzen edertasun zabala argitu zen, hain zuzen teilatu-hegal zulatuaren azpian zutik bermatuta zegoen dantzari irudian. Altxor hori ikusita, isilpean jaso zuen zoru elurtutik, inor konturatu ez zedin eta berehala galtzaren ezkerreko sakelean gorde zuen.

Baina zertan ari dira! Ez al daukate inongo sentimendurik?" bere artean alargundu berria zen zaldun batek eta jarraian, begiak seme atsekabetuarengan finkatu zituen, zeina hilotzaren espresio handiko begitarteari so luzaroan geratu baitzen, hildakoari aurpegia hil-oihalez estali zitzaien arte.

Medikuaren agindua jarraituz, laguntzaileek gorpua hil-zalgurdira estropezuka eramaten ari zirela, zabuka ibilarazteak hil-oihala irristatzea eta hildakoaren aurpegi oroitarazlea berriro

agerian geratzea ekarri zuen, hain justu, ama galdu berri zuen mutikoaren aurretik igarotzen ari ziren une berean, hildakoaren begi adierazkorrak ezinbestean harengan zorrotzuz. Ahazten ez den une horietakoa izan zen, non gaztetxoak, sentimendu-zurrunbiloan murgildurik, konplizitate-sentsazio bero bat sumatu baitzuen bere baitan. Haren begirada hausnarkorrean galdurik, guztiz harrapatuta sentitu zen, baina aldi berean aske, inoiz baino askeago, hatzamarra poltsikoan dantzari irudiarekin erdi jolasean ari ziren bitartean.